


Ametz Iratorza Ezkiaga

B maila • **Aipamena**

Ametz Irastorza Ezkiaga naiz eta La Salle ikastetxean ikasten dut. Eskolaz kanpo saskibaloia da nire zaletasunik nabarmenena. Ez da lehenengo urtea idazlehiaketa honetan sariren bat dudala, hala ere, urtero poz handia sentitzen dut. Aurten olerkian suertatu zait aipamen saritua. Beraz, eskerrak eman nahi nizkieke etxekoei, irakasleei eta lagunei euren onena nirekin partekatzeagatik. Saria berriz, nire aitona-amonei eskaini nahi nieke zaindu, babestu eta egunez egun animatzen nautelako. Ea ba olerkia gustukoa duzuen!



ETORKIZUN EGARRIZ

Lotsa eta amorrua
lotu zaizkit eztarrian.
Lotsa eta amorrua
bildu zaizkit inguruan.

Galera sentitu dut,
izua, haserrea,
lehia galtzearen
samin ezkutua.

Malkoak eta sua
lehertu zaizkit buruan.
Malkoak eta sua
piztu zaizkit ariman.

Tristura sentitu dut
barren barreanean,
besteek zer esanaren
berdur inozoa.

OLERKIA

Lotsak eta amorrak,
malkoek eta suak
altxa arazi naute ordea.

Ekinean jarraituko dut...
hurren goan galduta ere,
BETI AURRERA!